Agur Jauna,

Jaunak agur

Ekin eta jarraitu

I. Euzkadi'ko apaizak beste aberieta tokietakuak baño nagiaguak, alperaguak...? Gure ondorenguak gu, Euzkadi'ko apaizak nagitzat botatea, ez dot uste zueri bere atsegiñ izango jatzuenik. Beste aberietakuak baño gitxiago gerala entzuterik ere ez dogu gura. Baña, gure amak erakutsiriko euzkera, izkuntza berezi au, berbiztuten, apainten eta zabalduten sayatzen ezkagera, beñobein entzungo da, beste errietakoak baño gitxiago eta nagiaguak izan gerala.

España'ko elertiaren edestia, artu eta edegi daigun. Erderak, batek ere bere asieran, dituanik gizonik maitakeenak, aundienak; idazlarik onenak, apaizak dira. Gonzalo de Berceo, Juan Ruiz (Arcipreste de Hita), Juan de la Encina, Alfonso Martinez de Toledo (Arcipreste de Talavera), Alfonso de Madrigal, Benito Arias Montano, Fray Luis de Leon, San Juan de la Cruz, Francisco de Rioja, Rodrigo Caro, Bartolomé Leonardo, Fray Diego de Hojeda, Bernardo de Balbuena, Mariana, Lope de Vega, Tirso de Molina, Calderon eta abar. Onez gañera beste asko bigarren mailakuak eta oindiño lenengokuak be.

Frantzia'n ere, asko dira; Rabelais, Bossuet, Flechier, Bourdaloue, Massi-

(2)

llon. La Rue. Fenelon, Lacordaire. Italian entzutetsuak dira Benedetti, Celano, San Francisco de Asis, Fray Pacifico, Seneri. Ingelatera'n San Beda, Wiseman. Cataluña'n Verdaguer, Costa Llovera.

Euzkal elertiaren ~~apai~~ edestian apaizok ugarien izatea gura dogu? Ekin lanari asteko dagozanak, asiak ostera jarraitu.

II Oindiño Euzkera'k ez dauskala elertirik, egia da. Baña, gaur elertirik ez daukola ta beste barik basterdu biar dogu? Ori, dala ta basterdu daben elertzaleak badira. Oriaor bat, Fitzmaurice Kelly. "El vascuence niño mimado de los filólogos no ha acrecentado gran cosa la suma de delicias del mundo" España'ko elertiaren edestian diño au. Orain entzun egizuez Arrika-Alende Jaunaren itzak. Ondarreta'n Frailien izan eban itzaldian ziñuan "esa lengua humilde que Ud. tan microscópica ve desde su telescopio crítico...... ha hecho el milagro de la perduración de toda una raza a traves de los tiempos, de los hombres y de los acontecimientos..... No ha necesitado darse en epopeyas, pues que ha cumplido la mas grande epopeya que ojos humanos hayan visto y que ojos arcangélicos habrán presenciado pocas veces; la epopeya de la continuidad, de la perdurabilidad vasca, de la indestructibilidad racial euzkadiana, como clave portentosa que se enfrenta con la muerte y le arrebata su presa con la furia de sus "erres", para luego acariciarla en el regazo con la suavidad aterciopelada de su "t" mojada, de esa "t" que va en ese "maite", de esa "t" que va en ese "aite", de esa "t" que va en ese "kutuna", palabras todas entrañables que suben de un corazon blando a una boca blanda y que hasta hoy no han sido superadas en sonancia y emoción por ninguna expresión afectuosa de las lenguas sedicentes cultas, de los idiomas sedicentes clus-

tradis... (Vraitaren 3'an)

III. Ez da bela oraindino. Jarkaroa gaitik il biar dau izkuntzak, beste lurganeko bizitzaduen gustien erara. Baña sartazunaren sartazunez il diran izkuntzak gitxi dira. Agurtuta ilten diran gizonak be gitxi dirala. Euzkera bere ~~bere~~ ludifnetako egimbeara bete dabelako galtzen ete da? Ez. "No se muere, le matan,—diño Campion agurgariak, eta jarraitzen dau.— Proscripta de la enseñanza, arrojada de la vida oficial, víctima de un tenaz ojeo burocrático, huérfana de la menor protección, acordonada como un foco infeccioso, sufre el mismo destino que el altivo francés y el orgulloso castellano sufrirán el día que sobre ellos caigan garras tan crueles y despiadadas" Gramática Bascongada.

Alde guztietan itz egiten eta zabalduten alegiñtzen bagara gaiztetuko dogu. Ez uste izan gauza alegiña dala. Alperik gertkera, idazle, jakitun eta olerkari aundien izkuntza izana zan, laterak goitu eban. Esate baterako, Sizilian-XVIII garren giraldian doitzera (aleman) gaur euzkera aurkitzen dan taiguan egoan. Voltaire'k bestean ondo pantzeraz idazten ebela ta, aro bizi zan Federiko II garena Alemania'ko Bakalduna. Lutero'ren jarraitzaleak bakarrik doitzeraz idatzi eta mintzaten ziran. Frakesleak eta irasleak latera irakastizunetan, eta pantzera ostinguan erabilten eben. Aunditsuak pantzera egingo ebela zeresanik bere ez dago Orain giraldi bi estu eta larri eguan izkuntza ori, nasai eta zabal bizi da gaur. Berauxe jazo da kroazia; Bohemia, eta Galitzi'ko ~~elti~~ (dialecto) elkietan. Ru-

manie'tik, Serbia'tik, Bulgaria'tik, Finlandia'tik eta Letoniatik gauza ikasgarri asko dakartsiuber. Beste egun baterako itxi biarko ditugu.

IV Orain dala gizaldi ta erdi inguru eleslobera baseritar batzuk bakarrik egiten eben. Eta lenterago oinpetutako izkuntza gaur baseritarak lenke kaletari eta jatukunak darabile. ¿Eta zergaitik orrenbesteko aurerakuntza? Esteirak izparlari, olerkari eta idazle mordoska bateri, eta batez ere — edesakari ospetsu batek diñuanlez — apaizeri; doitzeraren otura lixum eta asmo txarrei aurez egiteko izkilu ezin-obea zala ikusirik, idazten eta izkintzetan asi ziriran apaizeri.

Aroken otura gaiztoen aurrean jarketo esi bereziia dogu euzkera.

Uztiurtza zaindu gura badogu, gure abesti, jolas eta dantza garbi eta alajoak galtzerik gura ezpadogu, zaindu ta zabaldu biar dogu euzkera. Bera sortu daben Jaunarentzat beronek dituan itz samur, goxo, bikain eta polikenak, birau bat baga ditxuan euzkera begiko au zabaldu kardaberastarak. Euzkerak irauten daben eriak uztiurtzaldeagoak, garbiaguak ezaldira? Ekandu onak euzkeragaz batera galtzen dojaz. Biraoak ostera geituar, dantza txarrak indartuar, abesti zatarak, ipuin eta jolas loiak umeen artean bere zabalduar. Egiz euzkera lasaientzat estuturo, lotsagabeentzat begira-geitudun eta oraingo baserri gelgarien ekainki agirienagoan bear dau. Eta gu ¿zeren bila gabiltz, txarkeri guztiok bastartuteko izkilua espuetan izanik?

V Eta orrez gañera ez ete da gure itzuntza? Geure gauza bat ondo jakiteko beartu-riki ezgagoz? Ludiko itzuntzarik eder-eta ikusiena balitz bere biotz-biotzetik maitatu bear genduke (geuria dalako). Ludian danik gauzarik ederena itzuntza da. Alperik izango da besteen artian zatarena, itzuntzarik ikusiena bere (gauza) irrigarria da.

Eta euzkera..? Mariana, Fraggia, Mayans, Kelly'k eta abar, gura dabena esan dagixela. Euzkeranik jakin ezarien, astakeriak esango ditue. Euzkera ikasi dabenari jaramon egin bear deutsegu.

Lenengo, aurrean daukagun irakasle ospetsuak toki onetan esan euskuguna igaz, gogoratu biar dautsuet: "Gaur darabilgun euzkera au ezdala lengo euzkeraren ondakin bat baño (Ez ondakin txarra izan bere..!) Eta alan da guzti ere ele-jakitunentzat dagozanik itzuntzarik ikusgari eta zoragarriena da

Verizon ele-jakitun entzutetsua ez da, asportzen euzkera goratzen. Latera, gerkera, erdera ta abar euzkeraren onduan ume zorri edo epo batzuek eraldai baten albuan (dirala) esateraño, ausartu zan. Larregi ete da? Ez dakit; au esaten dabena... ez da euzkalduna beintzat...

Euzkeraren aditz-jokoa (conjugación) Jaungoikua'gandik datorrela bakarrik, ez dala gizonak asmatunikua – diñostsu Hugo Schuchardt'ek.

Aldiz-luzu'ak edo gauzak dituan azkenengo apurrak ere ziatz azaltzeko indarra izatea dala – diño Humboldt'ek – euzkeraren gauzarik zoragarriena eta ederrena.

Abbadie Jaunak aindizti edo algebra oso bat dala; bere ~~jakin~~gaiti-

,ak batunak; bere erabil-erak ugariak eta egokiak izanik.

Euzkerako itz guztiak, aditz edo berbo egin geintez. Entzun egiozue Hampioni gauza onetaz "El pensamiento humano (en el euzkera) domina sin limites; es señor, es rey, es autócrata de las palabras; éstas a manera de ductilísima cera, reciben todos los sellos; ... la palabra toma todas las formas de esta (idea)". "Marca las relaciones directas e indirectas de las diferentes personas, con tanta riqueza y regularidad, que puede justamente apreciarse (la conjugación) cual obra maestra de filosofía"... Si a ésto se añade que estas relaciones pueden expresarse en once modos, veinticuatro tiempos simples, y noventa y un tiempos compuestos, nadie extrañará que califique la conjugación euzkara de portentosa."

Itzak ~~gogoaiun~~ gogogajen mempean eukitea; oldozkuneen erara batian gogoriak eta bestian gozoak, itunak orain, gero alaiak izatea, euzkerarena da. Ofti-bariak egiteko gertkerak ~~besteka~~ eréstasun aundia dautsa. Emakumeekin eta gizonezkoakin jardutetko aditzerak bere baditu; oraindino gejago, emakumien eta gizonezkoen artian bere, gurazuentzat, lagunentzat eta nagusientzat adiz-era bereziak euzkerak, batzarik ditu.

Apaiz Euzkeldun batek, Astarloa Jaunak dinuan letz — irudi bizi bat dirudi euzkerak. Izatiak besteren laguntazunik baga egiten dabena, adiz-joko batuunean azaldutan dacestu; beste bateren laguntasunegaz amaitzen dabena ostera, aditz-joko tolostuan. "Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua"

Oñari zabal eta gogoren ganian jasoriko etxe aundi eta ikusgari bat di-

rediela diño Campion'ek eta gero jarraitzen dau "Si atendemos a la abundancia y solidez de materiales, califiquémoslo de labor de cíclopes; pero en dirigiendo los ojos a las esbeltas torrecillas y afiligranadas agujas, debemos calificar de labor de hadas. Regularidad, proporción, y armonía en las grandes líneas; minuciosa riqueza en los infinitos detalles. La nave severa es un hormiguero de formas; un bosque dentro de un templo griego. El ánimo empieza en sobrecogido para terminar en fascinado. Las injurias del tiempo se pierden en la hermosura sin igual del conjunto." Gramática Bascongada.

VI. Beste aberrietako apaizak baño alperaguak izate gaitik, ardura ezpadeusku, besterik-ezlako izkuntza onen edertasunak ikara eragiten ezpadeusku, geure amaren erailleak izan gerala gure ondorenguak esateak ikaratzen ezpagaitu bere, naita-naiez Eleixa Amak agintzen deuskulako, itasi bearko dogu euzkera.

Baten-batek esango deusta Euzkadi'ko erririk erdietan erdera egiten dala ta.... ¿Eta zer? Belgike deritxogun lurraldean izkuntza bi egiten dira. Flandes izena daraman aldean doitxera, ostinguan frantzera. Mercier Jauna, Belgike'ko lenengo Jauntxorduna edo kardenala zanian, Benedicto XV. garenak idazti bat egin eutsan eta bertan inotsan "Maxime vero linguam probe calleat (sacerdos), qua varii utuntur hominum ordines" etc... Ondo jakin begie apaizak lurralde aretan gizonak egiten daben izkuntza. Eta Mercier Jaun agurgarriak Flandes'tarai euren izkuntzan (doitxeraz) itz egiteko, berberak lenengo egin ebana doitxera ikastea izan zan. Eta gero Flandes'ko erri batera apaiz juan biar eban ebenak doitxera ondo jakin biar ebela agindu eban.

Baita beste orietzen beste agindu eutsan Benedito XV. garenak. Bengin Kanada'ko Jauntxordun Jaunari bere. "Studeant sacerdotes qui sacris ministeriis vacant in utraque lingua peritiam usumque habere, invidiisque omnibus amotis

modo una, modo alia utantur pro fidelium necessitate"

Propaganda Fide'k eratu 1920, garengo Iratuskundean (Epifania) emon eben irakaspenian agintzen dabe eleix-abestiak, autorkuntzak eta agindu-ta ez dagozan eleix-otoitzak, eleixtarien izkuntzan egin biar dirala.

Letran eta Trento'ko Batzar'etako agintzak ekarri geuntekez; baña gaurko la- iragideta beste baterako lagako dogus.

Mixiolariei, mixiñuak emon biar dituen lurraldeetako izkuntza ondo ikasteko lenengo, agintzen jakue. Eta auxe izaten da euren lenengo zeregiña.

Euzkotarak, indiar, txinar edo baltzak beste ez ete dabe merezi?

Geure lagunen batek Pantzeara apaiz doyala badiñosku, baña pantzera ikasteko usterik ez dauala, ¿burutik egin da dagoan galdetuko deutsogu. Eta Euzkadi'n apaiz izan gura dabela ta euskeranik ez duala gura diñotsunari ¿zer esango deutsogu?

VII Euzkerak egunen baten bere jatortasunagaz, onbidetasunagaz eta edertasunagaz apurtu eta uxatuko, alditu euzkotarien biotz-begien aurrean dabilkazan odei-larri euzko zerueok geure biotzetan eta geure eirian emongo dautseguna.

"¡Ai! baña noizpait beren zerueak ikus balute
Euzkera beren etxean,
Lotsaren lotsaz sartu, Biztorri, sartu betiko
Zure burua lurpean....
¡Euzkel mendiak! Ez, ez egon zutik Ama'ifiketen
Erri gaiztoen aurrean....." (Biotzkadak Jauregui)

1933'gn Remendoa. Mie 1'an